



Esp.kodea: 2022EDIR0005

Gaia: 2022ko dirulaguntza eskaera  
Hasiera eguna: 2022/05/12

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Alkatezak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “Arkodi elkartearen dirulaguntza eskaera, *Mondraberi.eus* egitasmoa 2022an finantzatzeko (2022EDIR0005)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arkodi elkarteak 2022ko dirulaguntza eskaera aurkeztu du, *Mondraberi.eus* webgunea finantzatzeko. Hortaz, bada, aurkeztutako dirulaguntza eskaera azterturik, Kultura eta Euskara batzordeak hauxe proposatzen du, Euskara zerbitzuaren txostena ikusi ondoren:

**Lehenengo.-** Arkodi elkarteari 30.000 €-ko dirulaguntza ematea, 1-02-10-471-335-40-00 partidaren kontura.

**Bigarren.-**Dirulaguntza horrela ordainduko da:

- % 60, aurrerakin gisa, eta onuradunak laguntza onartu ondoren.
- Gainerako % 40a, dirulaguntzaren justifikazioa egin ondoren. Zuriketa egiteko epea 2023ko urtarrilaren 15ean bukatuko da.

**Hirugarren.-** Elkarte horrekin hitzarmena sinatzea, urteko jarduerako dirulaguntza arautzeko.

**Laugarren.-** Alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

**Bosgarren.-** Onuradunari 30 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalari adierazteko agindutako dirulaguntza onartzen ote duen. Epe horren barruan kontraktorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Laguntza onartzen duela jakinarazteko, eta horrela ordainketa abiarazteko, nahikoa izan liteke Euskara sailera posta elektronikoa bidaltzea.”

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

<b>Kodea</b>	BB22/00586	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2022/eka./14	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAV7Y4.H.Ld5B
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAV7Y4H.Ld5B">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAV7Y4H.Ld5B</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp.kodea:** 2022EDIR0005

**Gaia:** 2022ko dirulaguntza eskaera  
**Hasiera eguna:** 2022/05/12

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Anzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

ARKODI KULTUR ELKARTEA  
FERRERIAS KALEA, 28-B - BEHE.  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB22/00586	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2022/eka./14	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAV7Y4.H.Ld5B
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAV7Y4H.Ld5B">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAV7Y4H.Ld5B</a>		

Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu

